

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

Ekintza

Zertan ematen dugu denbora?

Helburuak:

Denbora nola erabiltzen dugun ohartzea.
Ordaindu gabeko lanaren garrantziaz eta haren banaketa desberdinaz gogoeta egitea.

Landutako konpetentziak:

- Informazioa tratatzea eta teknologia digitala erabili.
- Gizartea eta herritartasuna.

Denboraren erabilerari buruzko inkesta, 2009-2010

Inkestaren helburu nagusia aurretiko informazioa lortzea da, honako hau jakiteko, besteak beste: etxean ordaindu gabeko lana zenbatekoa den, etxeko ardurak senideen artean nola banatzen diren, biztanleriak kultura- eta aisia-jardueretan parte hartzen ote duen, eta gizarte-talde berezietan (gazte, langabe eta adinekoekin, esaterako) denbora ematen duen. Informazio hori oinarri hartuta, familiaren eta genero-berdintasunaren arloetako politikak formulatuko dira, eta etxe-sektoreko kontu sateliteak kalkulatu.

Halaber, estatistika-ikerketak aukera emango du informazio hau lortzeko: egunean zehar jarduera bat egiten duten pertsonen portzentajea; ataza horretan egunero batez beste emandako denbora; batez besteko egun bateko jarduera-banaketa, egun-motaren arabera (laneguna edo asteburua); eta jarduera berbera eguneko une berean egiten duten pertsonen portzentajea.

Emaitza nagusiak:

- 'Bizitza soziala eta dibertsioa' ataleko jardueretan, parte-hartzea txikiagotu egin da. Pertsonen %57,7k soilik egiten du jardueramota hori; hau da, 2003an baino bederatzita puntu gutxiago.
- Informatikan (sare sozialetan, informazioa bilatzen, jolastan...) emandako denbora handitu egin da. Pertsonen ia %30k egiten ditu 'Zaletasunak eta informatika' atalarekin lotutako jarduerak; 2003an, %17,9 zen.

Jardueraren garapena:

- Banan-banan, ikasgelako kide bakoitzak esango du egunean zehar zer jarduera egiten dituen eta bakoitzean zenbat denbora ematen duen.
- Taldeko batez bestekoa egingo da.
- Ondoren, orrialde hauetan azaldutako Denboraren Erabilerari buruzko Inkestako datuekin alderatuko dira emaitzak.
- Amaitzeko, lortutako emaitzei buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko proposatutako zaio taldeari.

- Oro har, etxeko lanak egiten, emakumeek bi ordu eta laurden gehiago ematen dituzte gizonek baino. Dena den, zazpi urtean, gizonek 41 minutu kendu dizkiote alde horri.
- Egunero, Espainiako biztanleen %93,5ek ia lau ordu ematen ditu, batez beste, hedabideak jarraitzeko, jarduera nagusi edo bigarren mailako jarduera gisa; hots, duela zazpi urte baino ordu-laurden gehiago.

Iturria: <http://www.ine.es/jaxi/menu.do?L=0&type=pcaxis&path=/t25/e447&file=inebase>

<http://www.ine.es/prensa/np669.pdf>

COD	EKINTZAK	laneguneko orduak	jaieguneko orduak
0	Ardura pertsonalak		
1	Ordaindutako lana		
2	Ikasketak		
3	Etxea eta familia		
4	Borondatezko lana eta bilerak		
5	Bizitza soziala eta dibertsioa		
6	Kirolak eta kanpoan jarduerak		
7	Zaletasunak eta informatika		
8	Komunikabideak		
9	Ibilbideak eta zehaztu gabeko denbora		

Material osagarria:

Denbora-aurrekontuen inkesta. Eustat
<http://bit.ly/1jtnvuR>

